

4 Hizkuntza ekologiatik iraunkortasunera: indarguneak, ahulguneak eta proposamenak¹

Xabier Erize

Soziolinguista

xabier.erize@yahoo.es

Sarrera-data: 2011-11-17 | Onartze-data: 2011-12-22

Laburpena. Hizkuntza ekologia hizkuntza txikien defentsari literatura soziolinguistikoan nahiz praktikan ematen ari zaion erantzun nagusietako bat da, lehenagotik zetorren aniztasunaren ideiarekin oso lotua. Kontzeptua pentsamendu ekologiatik (ez zuzenean natur zientzietako ekologiatik) metaforaz ekarria da eta balio moraletan du indargune nagusia. Baina ahulguneak ere baditu: (1) balioen mailako kontzeptu moral bat izanik, berez ez da aski ikerkuntzan edo hizkuntza kudeaketan gehiago garatzeko, eta beste diziplina batzuen laguntza behar du; (2) balio horietan sinesten dutenak oso inplikaturik gelditzen diren bezala, garrantzi gutxi ematen dietenak kanpo geldi daitezke; eta (3) biologiaren eta gizarte zientzien arteko paralelismoa irristakorra suertatzen da. Aurrera begira, bi proposamen: (1) hizkuntzen ekologiaren kontzeptua koherentzia etikoan sakonduz berrindartzea: Berdintasun Diskurtsoa barneratuz, eta (2) ekologiaren ordez, iraunkortasuna (ing. *sustainability*) kontzeptua erabiltzea praktikan nahiz ikerkuntzan, gizarte zientzietakoa dena eta giza komunitateen iraupena dimentsio sozio-kulturala, ekonomikoa eta ekologikoa kontuan hartuta bilatzen duena, ez bakarrik ekologikoa. • **Hitz-gakoak:** *aniztasuna, berdintasun diskurtsoa, hizkuntza ekologia, hizkuntza iraunkortasuna, hizkuntza kudeaketa enpresan, iraunkortasuna, hizkuntza politika publikoak.*

Abstract. From Language Ecology to Sustainability: strengths, weak points and proposals. Language ecology is one of the main responses being given in the defence of little-used languages in the sociolinguistic literature as well as in practice, and is intimately linked to the idea of diversity that came before. The concept has been transferred from ecologist thought (not directly from ecological natural sciences) by means of a metaphor and its main strength lies in its moral values. But it also has weak points: (1) as it is a moral concept on the level of values, it not sufficient for taking the development of research or language management much further, and will need the assistance of other disciplines; (2) just as those who believe in these values end up deeply involved, those who attach little importance to them could be excluded; and (3) the parallelism between biology and social sciences is turning out to be slippery. Two proposals with the future in mind: (1) to reinvigorate the concept of language ecology by taking an in-depth look at ethical consistency: by internalising Equality Discourse, and (2) instead of ecology, to use the concept sustainability in both practice and research as it belongs to the social sciences and seeks the survival dimension of human communities taking into consideration the socio-cultural, economic and ecological dimension, and not just the ecological one. • **Key words:** *diversity, equality discourse, language ecology, language sustainability, language management in companies, sustainability, public language policies.*

SARRERA

Hizkuntza ekologia da oraingo soziolinguistikan hizkuntzen arteko harremanez erabiltzen ari den kontzeptu nagusietako bat (Ricento, 2000; Hult 2010). Indargune garbiak ditu, baina ahulguneak ere bai. Artikulu honen helburua kontzeptuaren azterketa kritikoa egitea da, eta, horrekin batera, zenbait iker-bide eta argudio-bide iradokitzea aurrera begira.

Nola justifikatu ikerkuntza mailan eta ideologikoki euskararen eta hizkuntza txiki-ertainen defentsa barruko nahiz kanpoko iritzi publikoen aurrean? Galdera hori etengabea izan da hizkuntza hauen bizitzan zehar. Erantzun nagusia *aniztasunaren* defentsa izan da agian. Euskararen kasuan, jadanik XX. mendearen hasieran erabiltzen zen aniztasunaren argudioa, Arturo Campionek, bere garaiko zenbait pentsamendu korronterekin bat eginez (Erize, 1997), egin zuen bezala: “La ley de la naturaleza es la variedad. ...La ley de la variedad impera, asimismo, sobre el reino humano. ...La diversidad de idiomas” (Campion, 1916, 97-99. or.). Hizkuntza ekologiaren kontzeptuak zerikusi handia du aniztasunaren ideiarekin.

Einar Haugen-ek (1971/1972) abiatu zuen ikerkuntza esparru hau eta autore honek, klasikoekin maiz gertatzen denez, oraindik inspirazio iturri nagusietakoa izaten segitzen du. Geroztik, lan asko eta kalitate handikoak egin dira hizkuntza ekologiaren esparruan, eta lan arlo, adiera eta autore ugari daude, ez bakarrik hizkuntza txikien alde aritzen direnak. Lan arlo edo adiera horiek, nonbait, hiru multzotan bil daitezke (Fill, 2001; Fill eta Mühlhäusler 2001; Nash 2010): (1) hizkuntzak haien testuinguru sozialean aztertzea (Haugen-ek, 1971/1972, abiatua); (2) hizkuntzen aniztasuna eta bere defentsa (Haugen-ek, 1971/1972, abiatua); eta (3) hizkuntza eta ingurugiroa: ingurugiroari buruzko diskurtsoen azterketa, edota hizkuntza baten hiztunen natur ingurugiroa (Halliday-k, 1990, abiatua).

Artikulu honetan hizkuntzen ekologiaren bigarren adierari buruz (aniztasun ekolinguistikoaren defentsa) arituko da gehienbat. Adiera horretan, inspirazio eta legitimazio iturri handia da hizkuntzen alde aritzen diren autore eta erakunde askorentzat, eta azkenaldian berragerpen indartsua izaten ari da euskal soziolinguistikan.

Filosofia ekologistaren balioetan inspiratuta, analogiaz hizkuntzen gaietara hedatutako edo ekarritako kontzeptua dugu hizkuntza ekologia (Haugen, 1971/1972). Ekologiaren metaforaz mintzatzen da maiz. Bi hitzetan, horrela laburbil daiteke hizkuntza ekologia: “Naturako bioaniztasuna eta ekosistemen oreka defendatzen den bezala, hizkuntza

Nola justifikatu ikerkuntza mailan eta ideologikoki euskararen eta hizkuntza txiki-ertainen defentsa barruko nahiz kanpoko iritzi publikoen aurrean?

**Abiapuntuan
biologia eta
arazo
ekologikoak
dituen metafora
izanik,
biologiaren eta
gizarte zientzien
arteko
paralelismoa
maiz irristakorra
suertatzen da.**

aniztasuna eta ekosistema linguistikoen oreka defendatu behar dira; eta hizkuntza guztiek eduki behar dute toki bat hizkuntzen oreka ekologikoan, baita hizkuntza txikiek ere, ez bakarrik handiek”. Balio etiko edo moraletan du oinarri nagusia: “As in environmentalism, the moral discourse is clearly dominant, and its role in creating wider awareness of the issues is not in dispute” (Mühlhäusler, 2003, 243. or.). Bi jauzi gertatu dira hizkuntzen ekologiarraino iristeko. Lehendabiziko jauzia, ekologiaren zientzia biologikotik ekologismora, ez baitira gauza bera: “As a values-driven social movement, it should be distinguished from the pre-existing science of ecology” (Ecology movement, 2011. Ikus, halaber, Brennan eta Yeuk-Sze, 2011). Eta bigarren jauzia, ekologismotik hizkuntzen ekologismora, Haugenek nabarmendu zuen bezala (ikus aurrerago).

Argudio ekologikoak indar edo babes etiko handia ematen die hizkuntzen aldeko ikerketa eta lanei, hori da bere indargune nagusia eta alde horretatik oso emankorra izan da eta izango da: aski da euskararen egunerako argitaratu zen “Ekologiatik ere euskararen alde” artikulua (Insausti, 2011) irakurtzea bere indarrak jabetzeko. Baina egia da, halaber, literatura soziolinguistikoa nahiz eguneroko praktikan ageri denez, hizkuntza ekologiak badituela mugak edo ahulguneak:

- Balioen mailako kontzeptu moral bat da batez ere eta, berez, ez da aski ikerkuntzan edo hizkuntza kudeaketan gehiago garatzeko: beste diziplina batzuen laguntza behar du.
- Balio horietan sinesten dutenak oso inplikaturik gelditzen diren bezala, garrantzi gutxi ematen dietenak kanpo gelditu daitezke.
- Abiapuntuan biologia eta arazo ekologikoak dituen metafora izanik, biologiaren eta gizarte zientzien arteko paralelismoa maiz irristakorra suertatzen da.
- Arazo horiek direla-eta, zenbait irtenbide iradokiko ditut, hala nola:
 - Hizkuntzen ekologiaren kontzeptua koherentzia etikoan sakonduz berrindartzea, batez ere Sanchez Carrion “Txepetx”-en Berdintasun Diskurtsoa barneratuz.
 - Ekologiaren orde, *iraunkortasuna* kontzeptu zabalagoa erabiltzea, gizarte zientzietan sortua dena eta giza komunitateen iraupen orokorra hiru alderdi kontuan hartuta bilatzen duena: sozio-kulturala, ekonomikoa eta ekologikoa; ez bakarrik ekologikoa.

HIZKUNTZA EKOLOGIAREN OINARRIZKO ESANAHIAK 1971. URTETIK DAUDE LITERATURA SOZIOLINGUISTIKOAN: EINAR HAUGEN

Einar Haugen soziolinguista handiak plazaratu zuen kontzeptua bere oraingo esanahiarekin. Autore honek “The Ecology of Language” izeneko artikulua idatzi zuen 1971. urtean eta izenburu bera eman zion 1972.ean argitaratu zuen liburu klasikoari. Bertan, hizkuntza ekologia terminoa bi adieratan uler daitekeela azaldu zuen Haugenek, *ekologia* terminoa bera ere bi adieratan —natur zientzietakoa: zientzia deskriptiboa; eta ekologismoarena: naturaren osasunari eusteko aldarrikapen etikoa— uler daitekeen bezalaxe.

Hizkuntza ekologiaren lehengo adiera orokorra da, hots, hizkuntzaren eta bere ingurunearen arteko harremanen azterketa orokorrak arduratzen den diziplina zientifikoa: “Language ecology may be defined as the study of interactions between any given language and its environment” (Haugen, 1971/1972, 325. or.). Ingurune hori hizkuntza erabiltzen duen gizarte osoa da (ibid., 325. or.); baina psikologikoa edo hiztunen barne muinetakoa ere bada: “Part of its ecology is therefore psychological: its interaction with other languages in the minds of bi- and multilingual speakers” (ibid., 325. or.). Zentzu zabal honetan, hizkuntzen ekologia soziolinguistika orokorraren baliokidea izango litzateke nonbait, Haugenek proposatu zituen iker lerroetatik ere ondoriozta daitekeenez (ibid., 336-337. or.): hizkuntzen sailkapen konparatua; hiztunen azterketa soziodemografikoa; hizkuntzaren erabilpen eremuak; zein hizkuntza gehiagorekin dagoen ukipenean; estandarizazio maila; babes instituzionala (administrazioa, hezkuntza, erakunde pribatuak); hizkuntza jarrerak; eta aurreko guztia biltzen duen hizkuntzen sailkapen sozio-ekologikoen tipologia.

Hizkuntza ekologiaren bigarren adiera hizkuntzen mantentzeaz arduratzea da (“the cultivation and preservation of language”, ibid., 329. or.), ekologia ingurugiroaren osasunaz arduratzen den mugimenduaren bandera bihurtu den bezala (“the banner of a movement for environmental sanitation”, ibid., 329. or.). Deskribatzailea izateaz gain, terapeutikoa ere bada hizkuntzen ekologia. Horrela, hizkuntzen ekologiaren kezka nagusien artean hizkuntza txikien zeregina dago, bai eta hizkuntza horiek gizateria osoari ematen dioten aberastasuna ere: “What will be, or should be, for example, the role of ‘small’ languages; and how can they or any other language be made ‘better,’ ‘richer,’ and more ‘fruitful’ for mankind?” (ibid., 329. or.).

Hiztunen azterketa soziodemografikoa; hizkuntzaren erabilpen eremuak; zein hizkuntza gehiagorekin dagoen ukipenean; estandarizazio maila; babes instituzionala (administrazioa, hezkuntza, erakunde pribatuak); hizkuntza jarrerak; eta aurreko guztia biltzen duen hizkuntzen sailkapen sozio-ekologikoen tipologia.

**Ekologiaren
legeak hobeto
ulertzen dira
ekologia
kulturalaren
ikuspegitik, edo
hizkuntzen
erlazioa zentzu
ekologiko batean
ulertzen badugu.
Lurra ere
bakarra da,
baina ez da
uniformea.**

Metafora biologikoa, ordea, esplizituki baztertu zuen Haugenek, ondorio okerretara eramateagatik: “life of languages... like living organisms... It was clearly a metaphor only... Any conclusions drawn about language from this model were patently false” (ibid., 326. or.).

Hizkuntzak haien testuinguruan zientifikoki aztertzea, alde batetik, eta balio etikoak (hizkuntza txikiak mantentzea eta haien ekarpena munduaren aberastasunari), bestetik. Erronka horiek plazaratu zituen Haugenek orain dela 40 urte hizkuntzen ekologia kontzeptuaren bidez; eta oraindik ez dira gaingitu: hizkuntzen ekologiaren esparruan egin diren lan gehienak bi ardatz horien inguruan mugitu dira.

TXEPETX, HIZKUNTZA EKOLOGIAREN MAISU (AHAZTUA) EUSKAL SOZIOLINGUISTIKAN

I Hizkuntzen ekologiaren kontzeptua nazioarteko soziolinguistikatik euskal soziolinguistikara ekartzea eta garatzea Jose M^a Sanchez Carrion “Txepetx”i zor zaio, eta hori 1980ko hamarkadan egin zuen!, nahiz eta harrigarriro gaur egun aitzindaritza hori maiz ahaztua geratu den, Campionen aurrekariarekin ere gertatzen den bezala.

1985. urtean “La nueva sociolingüística y la ecología de las lenguas” artikulua plazaratu zuen Sanchez Carrionek. Bertan, horrela aurkeztu zuen jadanik hizkuntzen ekologiaren ideia:

La suerte de una lengua es... un asunto ecológico, de ecología planetaria, pues es el planeta el espacio que todos compartimos. (1985, 343-344. or.)

Bide beretik, *Un futuro para nuestro pasado* liburuan, atal oso bat eskaini zion Txepetxek hizkuntzen arteko oreka ekologikoari: “El equilibrio eco-lingüístico” (Sanchez Carrion, 1987, 331-340. or.).

Gerora ere segitu zuen hizkuntzen ekologiaren kontzeptua zabal-tzen. Oro har, Txepetxen teoriaren oinarrian hau dago: “la defensa del derecho a la vida, dentro de un modelo sostenible y compatible, de todos los pueblos humanos, sus lenguas y sus culturas” (Sanchez Carrion, 1999, 356. or.). Horixe da, hain zuzen ere, hizkuntzen ekologiaren ideia. Ideia bera aurki daiteke Jon Sarasuaren eta Txepetxen arteko el-karrizketaren zati honetan:

– (Sarasua) Hizkuntzak oinarri ekologiko batean ulertzea dago guzti honen inguruan... . Ekologiak balore batzuk inplikatzeko ditu: berdintasunaren baloreak, interdependentzia dibertsitatean.

– (Txepetx) Noski. Ekologiaren legeak hobeto ulertzen dira ekologia kulturalaren ikuspegitik, edo hizkuntzen erlazioa zentzu ekologiko

batean ulertzen badugu. Lurra ere bakarra da, baina ez da uniformea. Batasun bat duen bio-dibertsitatea da. (Sarasua, 1997, 32. or.)

Azken aldian euskal soziolinguistikan garatu den hizkuntza ekologiaren diskurtsoari buruz galdetuta, berriz, “nahiago dut diskurtso horren inguruan momentuz nire irizpiderik ez eman” erantzun zuen Sanchez Carrionek (Manterola eta Rodriguez, 2011b).

HIZKUNTZEN EKOLOGIAREN MUGAK ETA GARAPEN BERRIAK

Ikusi dugunez, kontzeptu eta lan ildo nagusiak, gaur egun indarrean segitzen dutenak, jadanik Haugenek (nazioartekoan) eta Txepetxek (euskal soziolinguistikan) garatuta utzi zituzten bere indargune nagusiekin, baina azkeneko urteetan hainbat muga nabarmendu dira eta, aldi berean, ekarpen baliotsuak egin zaizkio hizkuntzen ekologiari. Lehenago aipatutako muga inguruan antolatu da atal hau.

Kontzeptu moral bat da eta gehiago garatzeko beste diziplina batzuen laguntza behar du: “hizkuntza ekologia + beste zerbait” motako garapen berriak.

Puntako autore batzuk (Grin, 2005; Hult, 2010; edo Mühlhäusler, 2003) bat datoz ideia honi buruz: hizkuntzen ekologia diskurtso moral bat da batez ere, baina gehiago garatzeko, ikerkuntzan, ekonomian edo politika publikoetan, beste diziplina batzuen laguntza behar du: “the moral discourse reigns paramount and is not matched by equally strong discourses in the other two domains [scientific and economic]. Policy making, however, cannot be sustained by moral arguments alone” (Mühlhäusler, 2003, 232. or.). Bestalde, Skutnabb-Kangas eta Phillipson (d.g.) antzeko arazo batez ohartarazi digute: autore asko hizkuntzen ekologia modan jarri den marko orokor bat bezala erabiltzen ari dira, ia testuinguru sozialaren eta hizkuntzen arteko harremanen sinonimo bezala, baina eduki gehiago eman gabe. Eta John Edwards-en iritziz: “An ecology of language, then, cannot simply be what, for many writers, it has now become: an extended argument on behalf of diversity” (2010, 6. or.). Ikus, zentzu berean, Spolsky (2005) eta Calvet (1999/2006).

**Autore asko
hizkuntzen
ekologia modan
jarri den marko
orokor bat bezala
erabiltzen ari
dira, ia
testuinguru
sozialaren eta
hizkuntzen
arteko
harremanen
sinonimo bezala,
baina eduki
gehiago eman
gabe.**

**Ekosistemetik
giza
ekosistemetara
salto egiten
dudanean,
biologiako
prestakuntzarik
izan gabe ere, oso
mundu
kontzeptual
ezberdinak
aurkitzen ditut,
eta maiz
analogiak zailak
edo irristakorrak
gertatzen zaizkit.**

GARAPEN BERRIAK

Izan ere, hizkuntzen ekologiari egin zaizkion ekarpen nagusiak norma-lean "hizkuntzen ekologia gehi beste diziplina edo kontzeptu bat" motakoak izan dira. Hona hemen gehitu zaizkion diziplina edo kontzeptu horietako batzuk, denak garrantzi handiko autoreen eskuetatik:

- Berdintasun diskurtsoa (Sanchez Carrion "Txepetx", 1999).
- Giza eskubideak (Skutnabb-Kangas eta Phillipson, d.g. eta 2008).
- Politika eta ekonomia publikoak (Grin, 2005; Mühlhäusler, 2003).
- Ekologiako eta biologiako kontzeptuak (Bastardas, 1996, 2003 eta 2005; Calvet, 1999/2006).
- Hizkuntzaren azterketa orokorra praktika sozial bezala, gizarte bizitzaren eta bere testuinguruaren barruan (Calvet, 1999/2006).
- Diskurtso azterketa (Hult, 2010).
- Ingurugiroari buruzko diskurtsoen azterketa; eta hizkuntzen, gizakien eta ingurugiroaren arteko harremanen azterketa (Nash, 2010).
- Aniztasun biologiko/ekologikoa (Skutnabb-Kangas, d.g.).
- Gizarte teoria kritikoa (Ricento, 2000).
- Hizkuntzen ekologiaren garapen zehatzagoak (Mühlhäusler, 2003).

Balioen mailako kontzeptu bat denez, balio horiekin bat datorrena oso inplikatura gelditzen den bezala, garrantzi gutxi ematen dietenak kanpo geldi daitezke

François Grin-ek muga bat nabarmendu zuen hizkuntzen eskubi-
deen aldeko argumentazio moralei buruz: ez dute funtzionatzen aurrez
konbentzituta ez daudenekin, eta konbentzituta daudenen artean ere
zalantzak sortu daitezke argumentazio horiek politika publikoen abia-
puntu izan behar ote diren: "Its chief limitations are that it cuts almost
no ice among those who are not already convinced of the legitimacy of
those claims, and that even among those who would be sympathetic to
such rights on moral grounds, doubts may arise from a policy analysis
standpoint" (Grin, 2005, 457. or.).

Urrutirago joanez, euskal soziolinguistikan eragin handia izan duen
Louis-Jean Calvet-ek espreski esan du hizkuntzen ekologia ez dela me-
hatxupean dauden hizkuntzen defentsarako diziplina bat: "I am not
here taking the term *ecology* in its current sense, which is its political
version (protection of the environment), but in its first sense, 'the science
of habitat'" (Calvet, 1999/2006, 8. or.), alegia, "referring to ecology is
not synonymous with defending threatened species" (ibid.: 23. or.). Eta

ekolinguistika militantetik aldendu da: “Certain authors have, however, tried to use the idea of ecolinguistics for militant purposes” (ibid.: 23. or.). Ikus, zentzu berean, Pierozak (2001).

Biologiatik eta arazo ekologikoetatik abiatzen den metafora izanik, biologiaren eta gizarte zientzien arteko paralelismoa irristakorra gertatzen da

Irakurtzen hasi eta naturako ekosistemetatik giza ekosistemetara salto egiten dudanean, biologiako prestakuntzarik izan gabe ere, oso mundu kontzeptual ezberdinak aurkitzen ditut, eta maiz analogiak zailak edo irristakorrak gertatzen zaizkit.

Begira, esate baterako, naturako ekosistema bat:



Laku ekosistema bat. (Iturria: Ellis, 2011)

Naturako ekosistemen definizio bat hau da: “An ecosystem is a community of organisms interacting with each other and with their environment such that energy is exchanged and system-level processes, such as the cycling of elements, emerge” (Ellis, 2011). Bertan hizkuntzen ekologiarekin bat datozen hainbat gai aurkitzen ditugu: ikuspegi sistemiko edo holistikoa, izakien elkarrekiko nahiz inguruarekiko interakzioa... Baina, ezaugarri horiek edozein arlotako sistemarenak dira eta sistemen teoria orokorretan lantzen dira (Abercrombie, Hill eta Turner, 1994). Esaten da hizkuntza ekologiarekin ekarpen nagusietako bat ikuspegi holistikoa dela, baina holismoa ez da hizkuntzen ekologiarekin berezko ekarpena.

Are gehiago, ekologia zientifikoa berehala topo egiten dugu hizkuntza ekologiarekin balioetatik begiratuta “arraroak” gertatzen zaizkigun kontzeptuekin: hierarkizazioa (ekosistemak: *hierarchical systems*); elikadura katea; harrapakaria eta harrapakina (*predator – prey*); harrapakaria-harrapakina populazio zikloak; komunitate ekologikoen barneko in-

terkazio positiboa eta interakzio negatiboa; lehiaketa bidezko bazterketa (*competitive exclusion*); hautaketa naturala (*natural selection*). Orekaren kontzeptua, adibidez, hizkuntzen ekologian hainbeste erabiltzen dena, kolokan jartzen da, eta are gehiago, esaten da orekan legokeen ekosistema bat pobregoa izango litzateke orekara iritsi ez den beste bat baino:

It was once believed that natural ecosystems are usually at equilibrium (the “balance of nature”). But ample empirical data now suggests that this assumption is almost never correct: *natural ecosystems are usually far from equilibrium*. Moreover, *if natural selection between species occurs during the transition to equilibrium, equilibrium communities will be less rich than those that are yet to reach equilibrium*. ... Selection between species that utilize the same resources (that is, they occupy the same “niche”) will lead to the *exclusion of the less fit by the more fit through “competitive exclusion.”* The eventual equilibrium community, one in which selection would no longer be acting, the (controversially) so-called “climax community,” is necessarily less rich than those that temporally preceded it. (Beltza nirea da) (Sarkar, 2009)

Horrelako gauzak irakurrita, bi aldiz pentsatuko nuke nik biologiako ekologiaren analogiaz kontzeptu hauek hizkuntza txikien iraupenaz arduratzen den soziolinguistikara ekarri baino lehen!²

Giza- eta hiri-ekosistemak, aldiz, Chicago edo Bangkok bezalako hirien irudiekin erakusten dira:





Giza- eta hiri-ekosistemak: Chicago eta Bangkok. (Iturriak: Human ecosystem, 2011; eta Urban ecosystem, 2011)

Hiri- eta giza ekosistemak, bistan denez, ez dira naturalak, pertsonen eraikitakoak dira, eta gizarte zientzien argitara aztertzen dira. Soziologian badago *urban ecology* kontzeptua, baina kontzeptu honek ere giza taldeen arteko lehiaren, borroken eta nagusitasunaren eremuetara garamatza, ekologia biologikoan gertatu zaigun bezalaxe, ez ahulen babesaren balioetara:

The Chicago School introduced ecological theory into urban studies. ...The city is defined as an environment like those found in nature. All parts of the environment are interdependent and are moved by natural forces. The most important of those forces is competition. *Competition between social groups for scarce urban resources*, especially land, means that *the best-adapted, the fittest, groups become dominant*. (Beltza nirea da) (Abercrombie, Hill eta

Borroka horiekin edo hirien berezko mugikortasunarekin lotuta, oreka→nahasketak→oreka berria prozesuak etengabe gertatzen dira (ibid., 440. or.).

Literatura soziolinguistikora itzuliz, naturarekiko paralelismoa bi ahoko ezpata da hizkuntzen defentsari dagokionez. Batzuek bioaniztasunaren onurak aldarrikatzen dituzten bitartean, teoriaren kritikoek hizkuntzen sorrera→garapena→heriotza prozesuaren naturaltasuna argudiatzen dute, Thomas Ricentok azaltzen duenez:

Supporters of language maintenance draw parallels between biodiversity and cultural/linguistic diversity, with the assumption that ‘cultural diversity might enhance biodiversity and viceversa’. Critics of these views argue that most languages (and species of animals and plants) that have ever existed are extinct; in short, critics claim that cultural (including linguistic) evolution is a ‘natural’ human phenomenon. (Ricento, 2000, 204. or.)

Are gehiago, John Edwards-en iritziz, metafora hutsaz haratago jotzen saiatzen direnak eremu irristakor edo arriskutsuetan sartuko dira berehala: “any attempt to go beyond a purely metaphorical relationship between linguistic and biological diversity will soon find itself on dangerous ground” (Edwards, 2010, 25. or.). Agian, arrisku hori izango zuen gogoan Haugenek metafora biologikoa baztertu zuenean...

AUKERAK-MEHATXUAK-INDARGUNEAK-AHULGUNEAK (AMIA) LABURPENA

I

Orain arteko guztia hizkuntza ekologiaren AMIA taula batean laburbildu daiteke:

Indarguneak	Ahulguneak
<ul style="list-style-type: none"> • Metafora ekologikoaren indar morala. • Ados daudenen inplikazio handia. 	<ul style="list-style-type: none"> • Garatzeko, beste diziplina batzuen laguntza behar izatea. • Bere indarra gauzatzeko, argudio ekologikoari garrantzia eman behar izatea. • Biologiaren eta hizkuntzen arteko paralelismoa irristakorra izatea. • Bere ekarpenak (aniztasuna, holismoa, interakzioa, berdintasuna) aldez aurretik existitzea eta hizkuntza ekologiaren berezkoak ez izatea.
Aukerak	Mehatxuak
<ul style="list-style-type: none"> • Koherentzia etikoan sakonduz sinesgarritasuna irabaztea. • Iraunkortasunaren kontzeptura aldatuz, ikerkuntzan eta gizarte antolakuntzan hobeto eragitea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Sinesgarritasun etikoa galtzea. • Argudio ekologikoari garrantzirik ematen ez diotenak kanpo gelditzea • Eraginkortasun praktikoa gutxi izatea gizarte antolakuntzan. • Erabilgarritasun zientifiko txikia izatea.

BI PROPOSAMEN AURRERA BEGIRA

AMIAN aipatutako aukerak baliatzeko eta mehatxuei aurre egiteko, bi proposamen iradokiko ditut:

Hizkuntzen ekologiaren kontzeptua koherentzia etikoan sakonduz berrindartzea: Sanchez Carrion "Txepetx"-en Berdintasun Diskurtsoa.

Ikusi dugunez, hizkuntza ekologia balioen mailako kontzeptu bat izanik, balio horiekin bat datorrena oso inplikaturik gelditzen den bezala, bat ez datorrena kanpo gelditu daiteke.

Hizkuntzen ekologiaren indargune nagusia bere izaera etikoa da eta, aurrerantzean, kontzeptuak erakargarritasunari eutsi nahi baldin badio, sinesgarritasun etikoaren lehia irabazi behar du: erabiltzen duenak zorrozki erakutsi behar du koherentea dela, berdintasunean sakonki sinesten duela eta bere buruarentzat gauza bat eskatzen badu, besteen-tzat ere gauza bera nahi duela. Iritzi publikoak, euskaldunak nahiz erdaldunak, garbi ikusi behar du hizkuntza ekologiaren izenean toki duin bat eskatzen bada euskaldunentzat, gainerako hizkuntzen hiztunentzat ere toki duin bera eskatzen dela; alegia, hizkuntza ekologiaren sakoneko ametsa ez dela "tortillari buelta" ematea.

Nazioarteko soziolinguistikari ohartu dira sinesgarritasunaren arazoak. Adibidez, frantsesak ingelesaren aurrean aniztasuna aldarrikatzen duenean, sinesgarria izateko gauza bera egin beharko luke hizkuntza txikiekiko, Louis-Jean Calvet-ek (2004) esan duenez:

... la defensa del francés en el mundo, para que tenga credibilidad, también debe considerar el destino de las "pequeñas" lenguas. De no ser así podría suceder que la lucha de la francofonía, de la hispanofonía, y de la lusofonía frente al inglés podría parecerse a una suerte de Yalta lingüístico... El desafío es muy grande, porque toca a la vez la credibilidad de la lucha por la diversidad... y su eficacia. De no ser así uno podría preguntarse si no se trata de una noción de geometría variable, sólo destinada a ser un escudo de defensa del francés.

Eta gauza bera gertatzen da alderantziz, hizkuntza txikien ingelesarekiko harremanetan:

There has also been a tendency within the Minority Language Rights literature to argue for the recognition of multiplicity in relation to minority languages, but

**Naturarekiko
paralelismoa bi
ahoko ezpata da
hizkuntzen
defentsari
dagokionez.
Batzuek
bioaniztasunaren
onurak
aldarrikatzen
dituzten
bitartean,
teoriaren
kritikoez
hizkuntzen
sorrera→garapen
a→heriotza
prozesuaren
naturaltasuna
argudiatzen dute.**

**Frantsesak
ingelesaren
aurrean
aniztasuna
aldarrikatzen
duenean,
sinesgarria
izateko gauza
bera egin
beharko luke
hizkuntza
txikiekiko.**

a reluctance to address the burgeoning multiplicity of value and use with respect to varieties of English. (May, 2005, 339. or.).

Irtenbiderik egokiena, nire ustez, Txepetxen *Berdintasun Diskurtsoa* da. Txepetxek badaki diskurtsoen garrantzia hizkuntzen bilakaeran. Indarberritzearen oztopo psikologikoak gainditzeko gakoa diskurtso berri bat sortzea da (Sanchez Carrion, 1987, 394. or.). Hizkuntza gutxitu batek, bere normalizazio prozesuan arrakasta lortu ahal izateko, hizkuntza nagusiak ez duen funtzio kualitatibo berri bat eskuratu behar du (Sanchez Carrion, 1999, 280-281. or.).

Funtzio kualitatibo berri hori *Berdintasunaren Diskurtsoa* bereganatu eta bere izenean jardutea da, hain zuzen ere:

... la función a la que se adscribe la lengua minorizada es, precisamente, la de promover la igualdad entre las lenguas, la de hacerla portadora de un Discurso de Igualdad, innovador, que abra un nuevo tiempo histórico en el que se garantice la plenitud funcional y la autorreproducción de cualesquiera comunidad lingüística... (ibid., 281. or.).

Berdintasunaren diskurtсотik aritzeak ondorio nabarmenak ditu defendatzen diren helburuetan eta aldameneko hizkuntzekin, baita hizkuntza nagusiekin ere, ezarri nahi den harreman ereduari: kontua ez da euskara botere hizkuntza bihurtzea, boterea, gaur egun ulertzen den bezala, patologia kaltegarria besterik ez baita (ibid., 187. or.). Eta era berean, “lo que esta Teoría propone no es mayorizar la lengua minoritaria, minorizando a la mayoritaria, términos a los que la perspectiva estatalista —de uno y otro signo— intenta llevar reiteradamente el problema” (ibid., 282. or.). Alegia, ideia hauek “no son para usarlas contra el dominador convirtiendo al verdugo en víctima y a la víctima en verdugo, reproduciendo incansablemente un círculo vicioso, cainita” (ibid., 182. or., 134. oin-oharra).

Helburua, beraz, bikoitza da: (a) hizkuntza gutxiaren komunitatea trinkotzea, eta (b) eragina lortzea gizarte orokorrean, hizkuntza nagusiaren hiztunak areriotzat jo gabe:

No percibe a la otra como el enemigo a batir, sino como el interlocutor, el igual o semejante al que reencontrar. ...La proyección de un modelo alternativo de convivencia, basado en el mutuo respeto y el intercambio recíproco, sobre los hablantes de la otra lengua. (ibid., 316. or.).

Normalizazio arrakastatsua eta sendoa lortu nahi baldin bada, erakargarritasun berria duten proposamenak egin behar dira. Erakargarritasun hori berdintasuna egiatan defendatuzetik eta ohiko ereduak kualitatiboki gainditzetik etorriko litzateke. Inork ez du euskararen indarberritzearen beldur izan behar, diskriminazio berri bat dakarrela pentsatuz:

Pero esa articulación, para que sea posible, debe ser cualitativamente superior al modelo al que se aspira a sustituir, porque difícilmente atraerá a su seno las adhesiones que necesita si provoca miedos y recelos (capitalizables por el estado) a exclusiones y discriminaciones más virulentas... (ibid., 77. or.).

Hitz hauek dira orain artekoaren laburpen egokia: “no es un discurso patriótico el que podría corregir la atrofia de la comunidad minorizada (una ideología de la desigualdad), sino una lógica de las ideas simétrica.” (ibid., 91. or.).

Helburua, beraz, nazio linguistiko guztien elkarbizitza, iraupena eta erreprodukzioa ahalbidetzeko formulak lortzea da (ibid., 315. or.).

Nazio linguistikoen elkarbizitzak bi forma edo eredu har ditzake (ibid., 202-204. or.):

- a) *Nazio linguistikoaren autonomia osoa*, edo lurralde elebakartasun praktikoa, gero, hortik gora, harremanetan jartzeko gainerako hizkuntza komunitateekin.
- b) *Kolinguismoa*, edo lurralde bateko nazio linguistikoen konfederazioa, edo autonomia partekatua, edo elebakartasun funtzionala, hortik gora ere gainerakoekin harremanetan jartzeko.

Baldintza jakin batzuk betez gero (ibid., 203. or.), bi ereduak onargarriak liratekeela esan zuen Txepetek 1999an; baina 2011ko elkarrizketan “Lurralde bakoitzean hizkuntza bat, eta hizkuntza bat lurralde bakoitzean” dioen printzipioaz (Frantziako Iraultzatik datorrena, bide batez) galdetuta, zera erantzun zuen: “Ez da jadanik posible eta ezta onuragarria ere” (Manterola eta Rodríguez, 2011b). Bigarrenak eskatzen du lurralde horretan botere politiko inpartziala izatea, besarkatzen dituen hizkuntza guztiei euren garapen osoa bermatzea. Alegia, gaur egungo Estatu Hedakorraren kontrakoa.

Bilbo bezalako hiri handi batean, non hizkuntza komunitate bat baino gehiago nahasten diren —oso erakargarriak diren munduko hainbat hiri handi bezala: New York, Londres, Delhi...—, oso erabilgarria izan liteke bigarren ereduak:

Eta gauza bera gertatzen da alderantziz, hizkuntza txikien ingelesarekiko harremanetan.

**Hizkuntza ekologiare
ordez, hizkuntza iraunkortasunaren kontzeptua erabiltzea eta ikertzea proposatzen dut. Iraunkortasuna, ekologia ez bezala, gizarte zientzietan sortutako kontzeptu eta diziplina da eta giza komunitateen iraupen orokorra bermatzea bilatzen du.**

El colingüismo es, en la escala local, la representación de lo que el pacto confederado supone a escala de las comunidades lingüísticas. Las dos —o más— comunidades lingüísticas que comparten un territorio físico común optan, por mutuo acuerdo, compartir un mismo engranaje administrativo. ...Cohabitan el espacio común, que se decide interpretar como un único pueblo multinacional (multilingüístico, multirracial, multiconfesional). (ibid., 188. eta 192. or.).

Esandako guztiaren azalpen gaurkotua 2011n Txepetxi egindako elkarrizketan irakur daiteke (Manterola eta Rodriguez, 2011a eta b).

HIZKUNTZA EKOLOGIAREN ORDEZ, IRAUNKORTASUNA (ING. SUSTAINABILITY) KONTZEPTU ZABALAGOA IKERTU ETA ERABILI

I Hizkuntza ekologiare ordez, hizkuntza iraunkortasunaren kontzeptua erabiltzea eta ikertzea proposatzen dut. Iraunkortasuna, ekologia ez bezala, gizarte zientzietan sortutako kontzeptu eta diziplina da eta giza komunitateen iraupen orokorra bermatzea bilatzen du, hiru dimentsio kontuan hartuta: sozio-kulturala, ekonomikoa eta ekologikoa; ez bakarrik alde ekologikoa (Nazio Batuen Erakundea, 1987). Hizkuntzen kudeaketak hor du toki naturala, hizkuntza pertsonen ezaugarria delako. Albert Bastardasek (2005) sendo idatzi zuen hizkuntzen iraunkortasunaren kontzeptuaz, baina, nik dakidala, kontzeptu horrek ez du bide luzerik egin literatura soziolinguistikoan eta gehienbat hizkuntza ekologiarekin segitu da.

Iraunkortasunak aniztasunaren eta ekologiare balio moralei eusten die, hizkuntza ekologiare metaforaren ahulguneak eduki gabe. Gizarteen konplexutasuna eta aldakortasuna (Chicago, Bangkok, New York, Delhi... gogoan izan) kudeatzeko pentsatuta dago, giza taldeen ekitatea ziurtatzeko asmoarekin, *Informe sobre Desarrollo Humano 2011. Sostenibilidad y equidad: un mejor futuro para todos* txostenean ikus daitekeenez:

... la sostenibilidad está íntimamente ligada al problema básico de la equidad, entendida como justicia social y mayor acceso a mejor calidad de vida. La sostenibilidad no es solo, ni en primera instancia, un tema ambiental... Este Informe identifica vías de acción para que las personas, las comunidades locales, los países y la comunidad internacional promuevan la sostenibilidad ambiental y la equidad de maneras que se refuercen entre sí. (Programa de las Naciones Unidas para el Desarrollo, 2011).

Giza talde bakoitzari osorik garatzeko aukerak ematea da iraunkortasunaren helburu nagusietako bat, eta pertsonen eta taldeen erabakimen demokratiko pluralistarekin lotzen da: giza talde batek bere burua garatzeko nahia baldin badu, aukera guztiak eduki behar ditu.

Gainera, abantaila argi bat dauka iraunkortasunak: erraztu egiten du hizkuntzen gaia politika publikoetan sartzeari; eta, baita ere, errazago egiten du hizkuntzaren alorreko erakundeen elkarlana gainerako erakunde, administrazio eta enpresekin, hauek ere erabiltzen eta ulertzen dutelako iraunkortasunaren kontzeptua. Gaur egun, aldiz, hizkuntza erakunde edo sailei zaila gertatzen zaie loturak jostea administrazio edo enpresa handietako gainerako sailekin (zuzendaritza, finantza, industria, komertziala, antolakuntza), ez baitute kontzeptualizazio partekaturik: hauek ez dituzte soziolinguistikaren kontzeptuak erabiltzen, eta soziolinguistikak ez ditu haien kontzeptuak erabiltzen. François Grin-ek (2005) hizkuntza kontuak politika publikoetan eta ekonomian gehiago sartzeari nahi zuen, eta hori iraunkortasunaren kontzeptuekin erraztu egiten da.

Administrazioetan, askok dituzte iraunkortasun (edo gizarte erantzukizuneko [ing. *Corporate Social Responsibility, CSR*]) planak, departamentu guztiak zeharkatzen eta ukitzen dituztenak, eta, adibidez, Kataluniakoan edo Nafarroakoan hizkuntzak espreski aipatzen dira. Enpresetan ere oso sartuta dago iraunkortasuna zeharkako lan arlo bezala eta gero eta gehiago pentsatzen ari da enpresen gizarte erantzukizunaren eta hizkuntzen kudeaketaren arteko harremanez (Canyelles, 2010a, 2010b eta 2011; Erize, 2009; Sanvicén, 2009).

Laburbilduz, hizkuntza ekologiararen indarguneen eta ahulguneen aurrean, irtenbide bat Berdintasun Diskurtsoa sakonki barneratzea eta iraunkortasunaren kontzeptua erabiltzea eta gehiago ikertzea izan liteke. ●

BIBLIOGRAFIA

- Abercrombie, N., Hill, S. eta Turner, B. S. (1994). *Dictionary of Sociology*. 3. ed. Londres: Penguin Books.
- Bastardas, A. (1996). *Ecologia de les llengües*. Bartzelona: Edicions Proa.
- Bastardas, A. (2003). Ecodinámica sociolingüística: comparaciones y analogías entre la diversidad lingüística y la diversidad biológica. *Revista de llengua i dret*, 39, 119-148. Hemen eskuratua: http://www10.gencat.net/eapc_rld/revistes/revista.2008-09-19.0338091891/Ecodinamica_sociolingüistica_comparacions_i_analogies_entre_la_diversitat_lingüística_i_la_diversitat/ca.

Hizkuntza ekologiararen indarguneen eta ahulguneen aurrean, irtenbide bat Berdintasun Diskurtsoa sakonki barneratzea eta iraunkortasunaren kontzeptua erabiltzea eta gehiago ikertzea izan liteke.

- Bastardas, A. (2005). Linguistics sustainability and language ecology. *Language and ecology*. Online aldizkaria. Hemen eskuratua: <http://www.ecoling.net/Sustainability.pdf>.
- Brennan, A. eta Yeuk-Sze, L. (2011). Environmental Ethics. In E. N. Zalta (ed.), *The Stanford Encyclopedia of Philosophy* (Fall 2011 ed.). Hemen eskuratua: <http://plato.stanford.edu/archives/fall2011/entries/ethics-environmental>.
- Calvet, L.-J. (2004). La diversidad lingüística: ¿Cuáles son los desafíos para la francofonía? *Hermes*, 40. Hemen eskuratua: <http://ressources-cla.univ-fcomte.fr/gerflint/Chili4/08calvet.pdf>.
- Calvet, L.-J. (2006). *Towards an Ecology of World Languages*. Cambridge: Polity Press. (Jatorrizko bertsio frantsesez: 1999). Hemen eskuratua: <http://books.google.es/books?id=6phXCKXEXGsC&printsec=frontcover&hl=es#v=onepage&q&f=true>.
- Campion, A. (1916). Discurso leído por don Arturo Campión en el batzar que la Sociedad 'Euskal-Esnalea' celebró la mañana del 2 de Abril, en el Teatro de los Campos Elíseos de Bilbao. *Euskal Esnalea*, VI, 96-105.
- Canyelles, J. M. (2010a). Aproximació al respecte lingüístic des de la responsabilitat social de les empreses. *Revista de Llengua i Dret*, 54, 245-276. Hemen eskuratua: http://www10.gencat.net/eapc_rld/revistes/Revista_de_llengua_i_dret/Aproximacio_al_respecte_linguistic_des_de_la_responsabilitat_social_de_les_empreses/ca.
- Canyelles, J. M. (2010b). *Empresa i llengua. Un enfocament de responsabilitat social empresarial per a aportar valor a tots els grups d'interès*. Barcelona: Generalitat de Catalunya. Departament de Treball. Hemen eskuratua: http://www.collaboratio.net/mm/File/ca/Empresa_i_llengua.pdf.
- Canyelles, J. M. (2011). Empresa eta hizkuntza eskuliburua. 2011.11.17, IMH Elgoibar Hizkuntzen Kudeaketa Enpresan VI. Jardunaldian egindako hitzaldia. Hemen eskuratua: <http://www.youtube.com/watch?v=fYIF1NUixsk&feature=youtu.be>.
- Ecology movement. (2011). In *Wikipedia*. Hemen eskuratua: http://en.wikipedia.org/wiki/Ecology_movement.
- Edwards, J. (2010). *Minority languages and group identity: cases and categories*. Amsterdam: John Benjamins. Hemen eskuratua: http://books.google.com/books?id=Q2dJlB0TW8oC&pg=PT61&dq=john+edwards+ecology+of+language+revival&hl=es&ei=dBbVTv3YElfw8QPXj6nzAQ&sa=X&oi=book_result&ct=result&resnum=1&ved=0CD EQ6AEwAA#v=onepage&q&f=false.
- Ellis, E. (2011). In C. J. Cleveland (ed.), *Encyclopedia of Earth*. Hemen eskuratua: <http://www.eoearth.org/article/Ecosystem?topic=58074>

- Erize, X. (1997). *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936)*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Erize, X. (2009). Nafarroako Kutxaren hizkuntza garapena eta Gizarte Erantzukizuna: interes-taldeen esperientzia positiboa. 2009/10/22, IMH Elgoibar Hizkuntzen Kudeaketa Enpresan IV. Jardunaldian egindako hitzaldia. Hemen eskuratua: <http://zuzenean.imh.es/web/ondemand/07b9a39556541df9abfe1a1220d8a0c8.html>
- Fill, A. (2001). Language and ecology: ecolinguistic perspectives for 2000 and beyond. In D. Graddol (ed.), *AILA Review 14: Applied linguistics for the 21st century*, 60-75. or. Online aldizkaria. Hemen eskuratua: http://scholar.google.es/scholar_url?hl=es&q=http://publikationen.uni-frankfurt.de/files/15253/Aila14.pdf%23page%3D66&sa=X&scisig=AAGBfm38_Z92Kl5iaXcWfHJUsVzM21SDbQ&oi=scholar.
- Fill, A. eta Mühlhäusler, P. (2001). *The ecolinguistics reader: language, ecology and environment*. Londres: Continuum.
- Grin, F. (2005). Linguistic human rights as a source of policy guidelines: A critical assessment. *Journal of Sociolinguistics*, 9, 448-460.
- Halliday, M. A. K. (1990). New Ways of Meaning: The Challenge to Applied Linguistics. *Journal of Applied Linguistics*, 6, 7-36.
- Haugen, E. (1971/1972). The Ecology of Language. In E. Haugen, *The Ecology of Language* (A. S. Dil-ek hautatutako artikulu bilduma), 325-339. or.. Stanford, CA, EEBC: Stanford University Press.
- Hult, F. M. (2010). Analysis of language policy discourses across the scales of space and time. *International Journal of the Sociology of Language*, 202, 7-24.
- Human ecosystem. (2011). In *Wikipedia*. Hemen eskuratua: http://en.wikipedia.org/wiki/Human_ecosystem.
- Insausti, M. (2011, abenduak 2). Ekologiatik ere euskararen alde. *Berria*, 4. or.
- Manterola, M. eta Rodriguez, Tx.. (2011a). *Txepetxekin berbetan (I)*. Hemen eskuratua: <http://www.blogak.com/garaigoikoa/txepetxekin-berbetan-1>.
- Manterola, M. eta Rodriguez, Tx.. (2011b). *Txepetxekin berbetan (II)*. 2011.11.18an eskuratua, helbide honetan: <http://www.lantalan.com/271>
- Mühlhäusler, P. (2003). Language endangerment and language revival. *Journal of Sociolinguistics*, 7, 232-245.
- Nash, J. (2010). [Framing Discourses on the Environment liburuaren erreseina]. *Journal of Sociolinguistics*, 14, 409-415.
- Nazio Batuen Erakundea. (1987). *Report of the World Commission on Environment and Development: Our Common Future*. Hemen eskuratua: <http://www.un-documents.net/wced-ocf.htm>

- Pierozak, I. (2001). [Pour une écologie des langues du monde liburuaren erreseina]. *Cahiers d'études africaines*, 163-164. or. Online aldizkaria. Hemen eskuratua: <http://etudesafricaines.revues.org/131>
- Programa de las Naciones Unidas para el Desarrollo. (2011). *Informe sobre Desarrollo Humano 2011. Sostenibilidad y equidad: un mejor futuro para todos*. New York: egilea.
- Ricento, Th. (2000). Historical and theoretical perspectives in language policy and planning. *Journal of Sociolinguistics*, 4, 196-213.
- Sanchez Carrion, J. M. "Txepetx". (1985). La nueva sociolingüística y la ecología de las lenguas. In Askoren Artean, *Aingeru Irigaray-ri omenaldia*, 327-345. or. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Sanchez Carrion, J. M. "Txepetx". (1987). *Un futuro para nuestro pasado*. Donostia: egilea.
- Sanchez Carrion, J. M. "Txepetx". (1999). *Aplicación sociolingüística de la territorialidad: márgenes de encuentro, Bilbao y el euskera*. Bilbo: Bilboko Udala.
- Sanvicén, P. (2009). Responsabilitat social de l'empresa i política lingüística. Una interessant eina de sensibilització de present i de futur. *Llengua i Ús*, 46. Online aldizkaria. Hemen eskuratua: http://www6.gencat.net/llengcat/liu/46_11.pdf.
- Sarasua, J. (1997). *Txepetxekin solasean: biziaren hizkuntzaz*. Bilbo: Gara argitaletxea.
- Sarkar, S. (2009). Ecology. In E. N. Zalta (ed.), *The Stanford Encyclopedia of Philosophy* (Spring 2009 ed.). Hemen eskuratua: <http://plato.stanford.edu/archives/spr2009/entries/ecology>.
- Skutnabb-Kangas, T. eta Phillipson, R. (d.g.). Language Ecology. Online artikulua, Hemen eskuratua: <http://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=language%20ecology&source=web&cd=1&ved=0CCcQF-jAA&url=http%3A%2F%2Fwww.cbs.dk%2Fcontent%2Fdownload%2F75553%2F1017932%2Ffile%2FEcology%2520art%2520final%25202006%2520Pragmatics.pdf&ei=x0jBTo-DLjT8QPV-9yeAQ&usg=AFQjCNFYDCi-y7Ae2RcN1Nba9oN4jUunNQ&cad=rja>.
- Skutnabb-Kangas, T. eta Phillipson, R.. (2008). A Human Rights Perspective on Language Ecology. In A. Creese, P. Martin & N. Hornberger (ed.), *Encyclopedia of Language and Education: Vol. 9. Ecology of Language*. (2. ed., 3-14. or.). New York: Springer. Hemen eskuratua: http://www.tove-skutnabb-kangas.org/pdf/Human_rights_perspective_on_ecology_Tove_Skutnabb_Kangas_and_Robert_Phillipson.pdf.
- Spolsky, B. (2005). Language policy. In J. Cohen, K. T. McAlister, K. Rols-tad eta J. MacSwan ed.), *Proceedings of the 4th International Symposium*

on Bilingualism, 2.152-2.164. or. Somerville, MA: Cascadilla Press.

Hemen eskuratua: <http://www.lingref.com/isb/4/168ISB4.PDF>.

Urban ecosystem. (2011). In *Wikipedia*. Hemen eskuratua: http://en.wikipedia.org/wiki/Urban_ecosystem.

OHARRAK

1. Mila esker Victor Aierdiri eta Pilar Marini haien iradokizunengatik, guztiz emankorrek suertatu zaizkidanak. Artikulu hau BAT aldizkarirako propio egindako lan berri bat da, baina zati batzuk Hiznet - Hizkuntza Plangintza Graduondokoan irakasle bezala eskaintzen dudan irakasgaitik eratorriak dira.

2. Neuri ere gertatu zait inoiz, ekologiaren metaforaren markoaren barruan kokatuta, eztabaidatzen hastea zer gertatzen den gehiago, espezieen edo hizkuntzen arteko borroka ala elkarlana, eta, hizkuntza ekologiaren balioekin hobeto lotzen delakoan, elkarlanaren aldea nabarmentzea, Mühlhäusler-ek (2003) ere egin zuenez. Baina, agian, hobe litzateke naturaren eta hizkuntzen arteko paralelismoan oinarritzen diren kontu horietatik aldentzea...